

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Barkos Lehendakariak harrera egin dio Manuel Torresi JEC Innovation Award saria jaso ondoren

*MTorres enpresak Parisen lortu du prozesu aeroespazialeko berrikuntzarako nazioarteko sari hau, sektorearen urteko topaketarik garrantzitsuenean*

Asteartea, 2018.eko apirilak 10

Nafarroako Lehendakari Uxue Barkosek, Garapen Ekonomikoko lehendakariorde Manu Ayerdirekin batera, harrera egin die gaur Nafarroako Jauregian MTorres industria taldearen sortzaile eta lehendakari Manuel Torresi eta Yolanda Torres lehendakariorde exekutiboari, enpresa honek JEC Innovation Award saria jaso ondoren.



Manu Ayerdi, Uxue Barkos, Manuel Torres eta Yolanda Torres, Lehendakariaren bulegoan.

MTorres konpainiak material konposatuzko kroskobarreko fuselajeetarako garatu duen molderik gabeko fabrikazio automatizatuagatik lortu du aipatutako saria, hots, karbono-zuntzez egindako pieza bakarreko fuselaje aeronautikoak ekoizteagatik, guztiz iraultzailea den teknologia berri baten laguntzaz.

Parisen antolatutako material konposatuen munduko topaketarik garrantzitsuenean jasotako sari honek bere horretan eusten dio Mtorres enpresak sektoreko lider bezala duen posizioari, sektore aeroespazialaren beharrei aurrea hartzeko duen ingeniari-taldea gaitasun handia berretsiz.

Barkos Lehendakariak zorionak eman dizkio Manuel Torresi ibilbide profesional aparta osatzen duen golardo honengatik. Barkosek taldeak I+G+b arloan egindako inbertsio handia eta nazioarteko bokazioa nabarmendu ditu. Horren harira gogoratu behar da Nafarroako Gobernuak Karlos II.a Noblearen domina eman ziola 2016an Manuel Torresi, berrikuntzaren alde hartutako bizi-taldea osoko konpromisoagatik eta "aeronautika eta energia bezalako sektoreetan transferentzia teknologikoko jarduerak garatzeko gaitasunagatik".